

## GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEKO TXOSTENA - 2022

> 2023ko martxoa

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas

## AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatzen ditu hilero Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, lurralde horretako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera. Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da. Argitalpen honetako informazioa lortzeko, **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa ez-finantzarioek** aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenak erabili dira.

Hileroko txosten horien osagarri bezala, urteko txosten hau prestatzen da. Izan ere, enpresa horien BEZaren urteko aitortpenak ere oso erabilgarriak dira; aldagai nagusien urteko bilakaera zein izan den kalkulatzeko aukera emateaz gain, informazio estrukturalari buruzko oso informazio interesgarria ematen du. Dena den, ez da ahaztu behar lagin bat aztertzen ari garela, eta nahiz eta adierazgarritasun handia izan lagin horrek Gipuzkoako ekonomian, ezaugarri jakin batzuk dituela, eta ondorioz, datuak orokortzerakoan kontuz jokatu behar dela.

Urteko aitortpenetan jasotako informazioa hiru atal nagusitan banatuta dago:

1. **Sektorekako sailkapena.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aitortutako epigrafe nagusitik abiatuta, enpresak 20 jarduera talde nagusitan sailkatuta daude.
2. **Enpresen tamainaren arabeko sailkapena.** Horretarako, enpresek 2022an izandako langile kopurua hartu dugu kontuan, eta 5 taldetan banatu ditugu.
3. **Eskualdeen arabeko sailkapena.** Enpresek aitortutako sozietate helbidearen udalerrria kontuan hartuta, eskualdeen arabeko sailkapen bat egiten dugu, eta bertan Donostia beste eskualde bat gehiago da, probintziako hiriburua izateak ematen dizkion berezigarriengatik.

### EZAUGARRI NAGUSIAK


#### ➤ 2022an Gipuzkoako enpresen salmentak %13,2 igo dira

2021ean salmentak osoak %16,8 igo ondoren, batez ere pandemiak 2020an jardura ekonomikoan izandako inpaktuaren ondorioz, 2022an salmentak berriro berreskuratu dira, %13,2ko igoerarekin. Igoera nabarmena izan da bai barruko salmentetan (+%12,3), eta baita esportazioetan ere (+%15,0).

1. taula. GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (urte arteko bariazio tasa)

|      | Salmenta osoak | Barruko salmentak | Esportazioak | Inportazioak |
|------|----------------|-------------------|--------------|--------------|
| 2006 | 7,1            | 6,6               | 8,4          | 11,9         |
| 2007 | 7,1            | 6,1               | 10,0         | 12,3         |
| 2008 | 0,0            | -1,5              | 4,6          | 0,0          |
| 2009 | -20,5          | -20,2             | -21,6        | -37,4        |
| 2010 | 2,1            | -4,6              | 21,6         | 28,4         |
| 2011 | 0,5            | -5,0              | 12,8         | 11,0         |
| 2012 | -5,1           | -8,0              | 0,4          | -8,7         |
| 2013 | -3,6           | -5,4              | -0,5         | -1,0         |
| 2014 | 3,3            | 3,3               | 3,2          | 1,2          |
| 2015 | 4,9            | 3,0               | 8,2          | 11,3         |
| 2016 | 0,4            | 1,7               | -1,8         | -5,6         |
| 2017 | 7,5            | 9,5               | 4,1          | 14,0         |
| 2018 | 6,6            | 5,8               | 8,0          | 10,5         |
| 2019 | 2,8            | 2,5               | 3,4          | 3,0          |
| 2020 | -10,1          | -9,1              | -11,9        | -13,5        |
| 2021 | 16,8           | 15,8              | 18,7         | 22,0         |
| 2022 | 13,2           | 12,3              | 15,0         | 21,5         |

1. grafikoa – SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)




## EZAUGARRI NAGUSIAK

## ➤ Igo egin da esportazioek Gipuzkoako enpresen salmentetan duten garrantzia

Nahiz eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoak negatiboak izan eta egoera ekonomikoa ziurgabetasun batean sartuta egon (interes-tasen igoerak, inflazioa..), ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkataritzak hazkunde handia izan du aurtén.

Gipuzkoako enpresen kasuan, 2022an kanpoko salmentek (+%15,0) barrukoak (+%12,3) baino portaera hobea izan dutenez, esportazioek salmenta guztien gainean duten pisua %34,7tik %35,3ra igo da; aldi berean, barruko salmenten pisua %65,3tik %64,7ra jaitsi da. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar 2008ko krisiaren aurreko aldietan, 2005-2006 urteetan, esportazioen pisua %25 ingurukoa zela; beraz, hamabost urteren buruan, kanpoko salmentek 10 puntuko pisu erlatiboa irabazi dute.

2. grafikoa – Salmenta osoek 2021 eta 2022an izandako banaketa



## ➤ Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso handia da


Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekiera maila oso altua du: salmenten 100 euro bakoitzeko 35,3 euro kanpoko merkatuetan bideratzen dira. Gipuzkoako enpresen esportazioen 3 helmuga nagusiak, hurrenkera horretan, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira; guztira, esportazioen %35 baino gehiago dira. Baina horrek beste ondorio bat ere badu: Gipuzkoako enpresak gero eta sentiberagoak dira herrialde horien bilakaera ekonomikoarekiko.

Esportazioak xeheago aztertuz gero, ikusten da EBtik kanpo egindakoak (+%15,8) Europar Batasunaren barrura egindakoak (+%14,3) baino zertxobait gehiago hazi direla.

Horren ondorioz, EBra egindako esportazioek pisua galdu dute: %55,1etik %54,8ra jaitsi dira (0,3 puntu gutxiago). Bestalde, munduko gainerako herrialdeetara egindako esportazioak %45,2 dira, eta iaz %44,9 izan ziren.

### EZAUGARRI NAGUSIAK


3. grafikoa – Esportazioek EBra eta munduko gainerako herrialdetara 2021 eta 2022an izan duten banaketa



2022an inportazioak %21,5 igo dira. Gipuzkoako enpresen inportazioak hornitzen dituzten herrialde nagusiak Frantzia, Alemania, Txina eta Italia dira. Lauren artean inportazio guztien erdia baino gehiago metatzen dute.

Kasu honetan, aztertutako bi eremuek portaera oso desberdina erakusten dute: EBtik egindako erosketak EBtik kanpotik egindakoak baino askoz gutxiago igo dira (+%16,8 eta +%34,3, hurrenez hurren). Horregatik, EBtik egindako inportazioen pisu erlatiboa 2,8 puntu jaitsi da, 2021eko %73,7tik egungo %70,9ra. Nolanahi ere, Gipuzkoako enpresen inportazioen ia 3/4 EBko herrialdeetatik datoz.

4. grafikoa - Inportazioek eremuen arabera 2021 eta 2022an izan duten banaketa



Esportazioak (+%15,0) inportazioak (+%21,5) baino gutxiago hazi dira, eta, ondorioz, merkataritzako estaldura ratioa edo saldoa jaitsi egin da: 2021ean %215 zen, eta orain %203. Nolanahi ere, oso datu positiboa da oraindik, esportazioak inportazioak halako bi direla esan nahi baitu. Kontuan izan behar dugu datu horiek txosten honetan aztertutako laginari dagozkiola; Gipuzkoako ekonomia osoa kontuan hartzen badugu, estaldura ratioa zertxobait txikiagoa da, %175 ingurukoa.


### SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA \*

➤ **Sektoreen arteko banaketan, industriak pisua irabazi du 2021aren aldean (+0,4 puntu); aldiz, galdu egin dute eraikuntzak (-0,1 puntu) eta zerbitzuek (-0,3 puntu)**

2022an, salmentak igo egin dira oinarritzko hiru sektoreetan: industrian (+%14,0), eraikuntzan (+%11,2) eta zerbitzuetan (+%12,5).

Horrela, eta industria sektoreko salmenten hazkunde handiagoaren ondorioz, aldaketa txiki bat gertatu da sektoreen arteko banaketan. 2022an, industria salmenten %55,2 da, eta aurreko urtean, berriz, %54,8 zen. Eraikuntzaren sektoreko partaidetza 2021eko %4,6tik %4,5era murriztu da. Zerbitzuen sektoreak ere behera egin du, Gipuzkoako enpresen salmenta guztien %40,6tik %40,3ra.

#### 5. grafikoa - Salmenta osoek sektoreen artean 2021 eta 2022an izandako banaketa




\* Aztertutako laginak bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, enpresa finantzarioak kanpo geratzen dira; eta bestetik, hilerio BEZaren aitorpena aurkezten duten enpresak bakarrik hartzen dira; hau da, nolabait zerbitzu sektoreak ordezkagarritasun txikiagoa du, eta enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturik laginean. Azkenean, bi faktore horien ondorioz, industriaren pisua benetakoa baino handiago da; eta alderantziz, zerbitzuena txikiagoa. Horrela, 2021eko EUSTATEN kontu ekonomikoen arabera, Gipuzkoan industriak Barne Produktu Gordinaren %28,0 suposatzen zuen, eraikuntzak %5,9 eta zerbitzuek %65,4.

## SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ **Industria garrantzitsua izan arren, sektore maila xehatuago baten ikuspuntutik, merkataritzaren azpisektorea aipagarriena da, salmenta osoen %25,5 hartzen baitu**

Sektoreak 20 taldetan sailkatuta, agerian geratzen da merkataritzaren azpisektorea aipagarriena dela 2022an izandako salmenta osoetan (kopuru osoaren %25,5); horren atzetik, tarte luze batera, beste hauek aurkitzen dira: makineria (%13,4), oinarritzko metalgintza (%8,1), garraioa eta komunikazioak (%7,2), eta, azkenik, beste zerbitzu komertzialak (%6,8).

6. grafikoa - 2022an salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




2021eko pisuarekiko aldaketa nagusiak honako hauek izan dira: pisu gehien irabazi duen adarra oinarritzko metalgintza izan da, 0,8 puntuko hazkundearekin (salmenta osoen %7,3tik izatetik %8,1 izatera pasa da), eta papergintza eta grafikoen adarra dator, 0,7 puntuko hazkundearekin (%4,0tik %4,7ra). Pisu erlatiboaren galera handiena garraio-materialean eman da (%7,3tik %5,9ra pasa da, 2021ean baino 1,4 puntu gutxiago).

2021arekiko bariazioari dagokionez, aztertutako 20 sektoreetatik 3tan bakarrik jaitsi dira salmentak: nekazaritza eta abeltzaintza eta arrantza (-%33,7), garraio-materiala (-%7,9) eta material elektrikoa (-%1,8). Gainerako 17 adarretan salmentak igo egin dira 2021etik. %20tik gorako igoerekin nabarmentzen dira: eta papergintza eta grafikak (+%31,3), metalgintzakoa ez den industria (+%26,8), oinarritzko metalgintza (+%25,1), beste zerbitzu komertzialak (+%24,8) eta metalezko gaiak (+520,5).

### SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA


7. grafikoa - 2022an salmenta osoen bariazio handienak eta txikienak izan dituzten adarrak (%)



#### ➤ Industria adarrak dira nagusi Gipuzkoako enpresen esportazioetan

Gipuzkoako enpresen kanpo salmenten oinarria ekipo ondasunei lotutako industria adarrak dira: makineriari eta garraio-materialari dagokienez, esportazio guztien %22,6 eta %12,3 dira, hurrenez hurren; oinarritzko metalgintza %13,8 da, metalezko gaiak %8,7 eta merkataritza %8,0. Bost adar horien artean Gipuzkoako esportazio guztien %65,5a hartzen dute.

8. grafikoa - 2022an esportazioen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




## SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

Adar esportatzaile horien artean, 2021. urtearekin alderatuta, pisu erlatibo gehien irabazi duena oinarritzko metalgintza izan da: %12,4 izatetik %13,8 izatera igaro da, aurreko urtean baino %28,0 gehiago esportatu baitu. Garraio-materialak 3,6 puntu galdu ditu (%15,9tik %12,3ra pasa da), esportazioak %10,8 jaitsi baitira 2021arekin alderatuta.

- **Garraio-materialaren adarrean salmenten %73,3 kanpoan egiten da, eta enpresen multzo osoaren batez bestekoa %35,3 da**

Esportazioek salmenta guztien aldean zer pisu hartzen duten begiraturik, ikus daiteke 6 adarretan beren salmenten erdia baino gehiago kanpoan egiten dela.

9. grafikoa – 2022an esportazioek salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)



Garraioko materialaren adarrean esan daiteke salmenta osoen ia-ia hiru laurdenak (%73,3) kanpoko merkatuetan egiten direla; aldiz, enpresen multzo osoaren batez bestekoa %35,3 da. Beste 5 adarrek ere erdia baino gehiago kanpoan saltzen dute: oinarritzko metalgintza (%60,1), makineria (%59,6), metalezko gaiak (%55,8), metalgintzakoa ez den industria (%54,0) eta material elektrikoa (%51,5).


## TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA \*

➤ **Enpresa txiki eta ertainek pisu oso handia dute Gipuzkoako ekonomian: salmenta osoen %67,5 egiten baitituzte**

Ezaguna da Gipuzkoako enpresa sarearen barruan enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. 250 langile baino gutxiago dutenak halakotzat hartuta, salmentetan duten garrantzi kuantitatiboa handia da, salmenta horien %67,5 egiten baitituzte; hau da, salmentetako 100 euro bakoitzeko, ia-ia 68 euro enpresa horiexek saltzen dituzte.

Bestetik, enpresa handienek (250 langile edo gehiago) salmenta osoen %32,5 egiten dute.

10. grafikoa - Enpresa taldeak 2022an salmenta guztien aldean izandako pisu erlatiboarekiko (%)



2021. urtearekin alderatuta, salmenta osoak %10 eta %17 bitartean igo dira talde guztietan. Gainera, antzeko igoerak izan dira barruko salmentetan eta baita esportazioetan ere.

\* Aztertutako laginak duen ezaugarri nagusietako bat da, BEZren aitortpena hilerro aurkezten duten enpresak hartzen direla; hau da, nolabait enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturak laginean. Beraz, errealitatean Gipuzkoan enpresa txikien dute pisua hemen erakusten dena baino handiagoa izango da.

## TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA


## ➤ Enpresa handienek profil esportatzaile argiagoa dute

Enpresen tamainarekin lotutako hainbat faktorek enpresa handiagoak nazioartean hedatzen laguntzen dute: baliabide gehiago (finantzarioak, pertsonalak, ezagutzakoak...); arriskuak hartzeko eta ziurgabetasun inguruneei aurre egiteko gaitasun handiagoa; eskala ekonomiak aprobetxatzeko aukera gehiago..

2022ko datuen arabera, argi eta garbi geratzen da enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan kanpoan gehiago saltzen dela. Hori horrela, 250 langile edo gehiagoko enpresek beren salmenta guztien %46,3 saltzen dute kanpoko merkatuetan; enpresa txikienetan, aldiz, %15,5 da. Portzentaje hori argi eta garbi igotzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian

Gero eta globalizatuago eta interkonektatuago dagoen mundu honetan, internazionalizazioaren erronka ezinbesteko faktorea da enpresak mantentzeko, indartzeko eta hazteko. Azken urteotan, teknologiari esker (komunikazioak, merkatuen prospekzioa, nazioarteko marketina) kostu mota guztiak asko murriztu dira, eta horrek indartu egin du edozein enpresa, txikia izanda ere, nazioartekotu daitekeenaren ideia. Hala ere, datuek erakusten dute enpresen dimentsioak eta tamainak ere garrantzia dutela.

11. grafikoa – 2022an esportazioen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



## ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA


## ➤ Donostiak metatzen du pisu erlatiborik handiena salmenta osoetan

Donostiak lurraldeko salmenta guztien %16,6 metatzen du, eta, 2021arekin alderatuta, 0,5 puntu irabazi ditu. Hori horrela izan da, salmenta osoak +%16,7 igo direlako, igoera orokorrak izandako +%13,2 baino pixka bat gehiago, eta beste eskualde batzuetako igoera baino gehiago.

Goierriko eskualdea bigarren postuan dago salmenta osoei dagokionez: guztien %16,3, nahiz eta 0,7 puntu galdu 2021arekiko; izan ere, salmenta osoak +%8,6 igo dira, hazkunde orokorra baino ia 5 puntu gutxiago. Salmenta osoen pisu erlatiboari dagokionez, hirugarren lekuan daude egoitza Debagoienan duten enpresak, lurraldeko salmenten %13,5 metatzen baitute; eta laugarren lekuan Donostialdea dago, salmenta guztien %13,0ekin.

2021. urtearekin alderatuta, salmenta osoen hazkunderik handiena Donostialdean izan da (+%19,8), bai barruko salmenten igoeraren ondorioz (+%17,4) eta baita esportazioena ere (+%26,4). Bestalde, salmentetan hazkunde txikiena izan duten eskualdeak Bidasoa Behea (+%8,3), lehen aipatutako Goierriko eskualdea (+%8,6) eta Urola Kosta (+%9,4) izan dira. Beste eskualde guztiak %10etik gorako hazkundeak izan dituzte.

12. grafikoa - Salmenta osoen pisu erlatiboa eskualdeen arabera 2022an (%)




## ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

## ➤ Goierriko enpresek beren salmenten erdia baino gehiago kanpoko merkatuetan saltzen dituzte

Oro har, esan daiteke Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso altua dela; eta batez ere Goierriko eta Debagoienako enpresen kasuan. Horrela, Goierriko enpresek kanpoko merkatuetan beren salmenta osoen %54,3 saltzen dute, eta Debagoienakoak %51,2.

Aitzitik, Donostian esportazioak nekez salmenta osoen %10,2 dira, hau da, lurraldeko %35,3ko batez bestekotik oso urruti dago; horren arrazoia da eraikuntzak eta hirugarren sektoreak (merkataritza, zerbitzuak...) hiriburuan duen pisu handia.

13. grafikoa - Eskualdeen araberako sailkapena – 2022an esportazioek salmenta osoen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



### GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

Estatistiken eranskina

---

#### **Oharra.**

Eranskin honetan jasotako datuen taulak populazio konstantearen arabera datuei dagozkie. Hau da, bariazio tasak bi urtez jarraian zergaldi berean aitortzen duten enpresen gainean kalkulatu dira. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte

## URTEARTEKO BARIAZIOEN LABURPENA

1 Taula. Salmenta osoak: barrukoak eta kanpokoak.  
(urtearteko bariazio tasak,%)

| Epealdia | Salmenta osoak | Barruko salmentak | Esportazioak |
|----------|----------------|-------------------|--------------|
| 2006     | 7,1            | 6,6               | 8,4          |
| 2007     | 7,1            | 6,1               | 10,0         |
| 2008     | 0,0            | -1,5              | 4,6          |
| 2009     | -20,5          | -20,2             | -21,6        |
| 2010     | 2,1            | -4,6              | 21,6         |
| 2011     | 0,5            | -5,0              | 12,8         |
| 2012     | -5,1           | -8,0              | 0,4          |
| 2013     | -3,6           | -5,4              | -0,5         |
| 2014     | 3,3            | 3,3               | 3,2          |
| 2015     | 4,9            | 3,0               | 8,2          |
| 2016     | 0,4            | 1,7               | -1,8         |
| 2017     | 7,5            | 9,5               | 4,1          |
| 2018     | 6,6            | 5,8               | 8,0          |
| 2019     | 2,8            | 2,5               | 3,4          |
| 2020     | -10,1          | -9,1              | -11,9        |
| 2021     | 16,8           | 15,8              | 18,7         |
| 2022     | 13,2           | 12,3              | 15,0         |



> Urteko txostena - 2022

## GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

**2 Taula. Salmenta osoak produkzio sektoreen arabera  
(urtearteko bariazio tasak,%)**

| Epealdia | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|----------|-----------|------------|------------|
| 2006     | 13,1      | 7,7        | -1,6       |
| 2007     | 7,5       | 11,8       | 5,6        |
| 2008     | 1,8       | 10,5       | -4,8       |
| 2009     | -25,1     | -11,1      | -14,8      |
| 2010     | 6,0       | -21,8      | 2,1        |
| 2011     | 3,5       | -21,6      | 0,3        |
| 2012     | -5,1      | -25,3      | -1,2       |
| 2013     | -4,1      | -17,4      | -0,4       |
| 2014     | 3,4       | 0,9        | 3,4        |
| 2015     | 5,4       | -7,5       | 6,3        |
| 2016     | -0,7      | -5,4       | 2,9        |
| 2017     | 6,3       | 5,1        | 9,6        |
| 2018     | 6,5       | 0,7        | 7,4        |
| 2019     | 2,6       | -2,0       | 4,0        |
| 2020     | -12,9     | -14,7      | -5,5       |
| 2021     | 21,6      | -9,8       | 14,4       |
| 2022     | 14,0      | 11,2       | 12,5       |



**3 Taula. Esportazioak eta inportazioak ingurune geografikoen arabera  
(urtearteko bariazio tasak,%)**

| Epealdia    | Esportazioak |       |                               | Inportazioak |       |                               |
|-------------|--------------|-------|-------------------------------|--------------|-------|-------------------------------|
|             | Guztira      | UE    | Munduko gainerako herrialdeak | Guztira      | UE    | Munduko gainerako herrialdeak |
| <b>2006</b> | 8,4          | 6,3   | 11,7                          | 11,9         | 10,4  | 17,4                          |
| <b>2007</b> | 10,0         | 13,3  | 5,3                           | 12,3         | 10,7  | 18,1                          |
| <b>2008</b> | 4,6          | 4,2   | 5,3                           | 0,0          | -1,6  | 5,3                           |
| <b>2009</b> | -21,6        | -27,1 | -13,2                         | -37,4        | -35,8 | -42,2                         |
| <b>2010</b> | 21,6         | 12,7  | 32,7                          | 28,4         | 32,1  | 16,0                          |
| <b>2011</b> | 12,8         | 20,3  | 4,8                           | 11,0         | 12,5  | 5,3                           |
| <b>2012</b> | 0,4          | 3,2   | -3,1                          | -8,7         | -8,6  | -9,2                          |
| <b>2013</b> | -0,5         | -1,5  | 0,7                           | -1,0         | -1,2  | -0,5                          |
| <b>2014</b> | 3,2          | 10,1  | -5,4                          | 1,2          | 0,5   | 3,7                           |
| <b>2015</b> | 8,2          | 6,0   | 11,4                          | 11,3         | 10,3  | 15,5                          |
| <b>2016</b> | -1,8         | 5,7   | -12,2                         | -5,6         | -4,7  | -8,5                          |
| <b>2017</b> | 4,1          | -2,6  | 15,1                          | 14,0         | 13,0  | 17,7                          |
| <b>2018</b> | 8,0          | 17,4  | -5,3                          | 10,5         | 8,4   | 18,6                          |
| <b>2019</b> | 3,4          | 4,5   | 1,4                           | 3,0          | 1,2   | 9,6                           |
| <b>2020</b> | -11,9        | -12,9 | -10,1                         | -13,5        | -14,8 | -9,2                          |
| <b>2021</b> | 18,7         | 3,4   | 45,3                          | 22,0         | 17,6  | 36,3                          |
| <b>2022</b> | 15,0         | 14,3  | 15,8                          | 21,5         | 16,8  | 34,3                          |

4 Taula – SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA - (urtearteko bariazio tasak,%)

| Taldea | Izena                              | SALMENTA OSOAK   |                 |                   | BARRUKO SALMENTAK |                 |                   | ESPORTAZIOAK     |                 |                   | ESPORTAZIOAK<br>SALMENTEN<br>GAIN |
|--------|------------------------------------|------------------|-----------------|-------------------|-------------------|-----------------|-------------------|------------------|-----------------|-------------------|-----------------------------------|
|        |                                    | 2021eko<br>pisua | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 | 2021eko<br>pisua  | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 | 2021eko<br>pisua | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 |                                   |
|        | <b>Guztira</b>                     | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>13,2</b>       | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b>    | <b>12,3</b>       | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>15,0</b>       | <b>35,3</b>                       |
| 01     | Nekazaritza, abeltzaintza arrantza | 0,0              | 0,0             | -33,7             | 0,0               | 0,0             | -29,9             | 0,0              | 0,0             | -86,4             | 1,3                               |
| 02     | Energia eta ura                    | 0,5              | 0,5             | 4,3               | 0,7               | 0,7             | 6,5               | 0,2              | 0,2             | 0,0               | 12,5                              |
| 03     | Oinarrizko metalgintza             | 7,3              | 8,1             | 25,1              | 4,6               | 5,0             | 21,1              | 12,4             | 13,8            | 28,0              | 60,1                              |
| 04     | Metalgintzakoa ez den industria    | 1,3              | 1,4             | 26,8              | 1,0               | 1,0             | 15,8              | 1,8              | 2,2             | 38,0              | 54,0                              |
| 05     | Kimika                             | 1,9              | 1,8             | 11,1              | 1,6               | 1,5             | 4,3               | 2,3              | 2,4             | 20,3              | 46,6                              |
| 06     | Metalezko eraikuntzak              | 4,9              | 5,0             | 15,5              | 3,8               | 3,9             | 15,7              | 7,1              | 7,1             | 15,2              | 49,8                              |
| 07     | Metalezko gaiak                    | 5,2              | 5,5             | 20,5              | 3,6               | 3,8             | 17,7              | 8,1              | 8,7             | 22,8              | 55,8                              |
| 08     | Makineria                          | 13,4             | 13,4            | 13,3              | 8,5               | 8,3             | 10,2              | 22,5             | 22,6            | 15,4              | 59,6                              |
| 09     | Material elektrikoa                | 3,5              | 3,0             | -1,8              | 2,7               | 2,3             | -7,2              | 4,9              | 4,4             | 4,0               | 51,5                              |
| 10     | Garraio materiala                  | 7,3              | 5,9             | -7,9              | 2,7               | 2,5             | 0,8               | 15,9             | 12,3            | -10,8             | 73,3                              |
| 11     | Elikagaiak                         | 3,4              | 3,6             | 19,4              | 4,2               | 4,4             | 17,1              | 2,0              | 2,2             | 29,4              | 21,4                              |
| 12     | Ehungintza eta oinetakogintza      | 0,1              | 0,1             | 14,2              | 0,1               | 0,1             | 7,4               | 0,1              | 0,1             | 28,6              | 36,5                              |
| 13     | Zurgintza eta altzarigintza        | 0,5              | 0,5             | 15,0              | 0,6               | 0,5             | 9,1               | 0,4              | 0,5             | 29,4              | 33,1                              |
| 14     | Papergintza eta grafikak           | 4,0              | 4,7             | 31,3              | 3,7               | 4,4             | 32,3              | 4,6              | 5,2             | 30,0              | 39,4                              |
| 15     | Kautxua eta plastikoa              | 1,4              | 1,5             | 18,4              | 1,2               | 1,3             | 15,1              | 1,8              | 1,9             | 22,7              | 45,4                              |
| 16     | Eraikuntza                         | 4,6              | 4,5             | 11,2              | 7,0               | 6,9             | 11,6              | 0,2              | 0,1             | -19,4             | 0,9                               |
| 17     | Merkataritza                       | 25,7             | 25,5            | 12,3              | 35,3              | 35,0            | 11,4              | 7,7              | 8,0             | 19,7              | 11,1                              |
| 18     | Garraioa eta komunikazioak         | 6,9              | 7,2             | 17,5              | 7,4               | 7,8             | 19,5              | 6,1              | 6,0             | 13,0              | 29,4                              |
| 19     | Beste zerbitzu komertzialak        | 7,2              | 6,8             | 6,9               | 10,0              | 9,3             | 4,1               | 1,8              | 2,2             | 35,7              | 11,3                              |
| 20     | Beste zerbitzu ez komertzialak     | 0,8              | 0,9             | 24,8              | 1,2               | 1,4             | 23,8              | 0,0              | 0,1             | 89,1              | 2,0                               |

**5 Taula – ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA**  
(urtearteko bariazio tasak,%)

| TAMAINA                   | SALMENTA OSOAK   |                 |                   | BARRUKO SALMENTAK |                 |                   | ESPORTAZIOAK     |                 |                   | ESPORTAZIOAK<br>SALMENTEN<br>GAIN |
|---------------------------|------------------|-----------------|-------------------|-------------------|-----------------|-------------------|------------------|-----------------|-------------------|-----------------------------------|
|                           | 2021eko<br>pisua | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 | 2021eko<br>pisua  | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 | 2021eko<br>pisua | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 |                                   |
| <b>Guztira</b>            | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>13,2</b>       | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b>    | <b>12,3</b>       | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>15,0</b>       | <b>35,3</b>                       |
| 25 langile baino gutxiago | 17,7             | 17,5            | 12,1              | 23,0              | 22,9            | 11,9              | 7,8              | 7,7             | 14,0              | 15,5                              |
| 25 - 49                   | 14,4             | 14,9            | 17,4              | 16,1              | 16,7            | 16,2              | 11,1             | 11,7            | 20,9              | 27,5                              |
| 50 - 99                   | 10,6             | 10,7            | 14,7              | 9,8               | 9,8             | 12,0              | 12,1             | 12,4            | 18,8              | 40,9                              |
| 100 - 249                 | 24,0             | 24,3            | 14,5              | 23,7              | 23,6            | 12,1              | 24,7             | 25,5            | 18,8              | 37,1                              |
| >=250                     | 33,3             | 32,5            | 10,6              | 27,4              | 27,0            | 10,6              | 44,4             | 42,7            | 10,5              | 46,3                              |

6 Taula – ESKULADEEN ARABERAKO SAILKAPENA  
(urtearteko bariazio tasak,%)

| ESKULADEAK     | SALMENTA OSOAK   |                 |                   | BARRUKO SALMENTAK |                 |                   | ESPORTAZIOAK     |                 |                   | ESPORTAZIOAK<br>SALMENTEN GAIN |
|----------------|------------------|-----------------|-------------------|-------------------|-----------------|-------------------|------------------|-----------------|-------------------|--------------------------------|
|                | 2021eko<br>pisua | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 | 2021eko<br>pisua  | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 | 2021eko<br>pisua | 2022ko<br>pisua | Bar.<br>2022/2021 |                                |
| <b>Guztira</b> | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>13,2</b>       | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b>    | <b>12,3</b>       | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>15,0</b>       | <b>35,3</b>                    |
| Bidasoa Behea  | 10,7             | 10,2            | 8,3               | 13,8              | 13,2            | 7,0               | 4,8              | 4,8             | 15,9              | 16,6                           |
| Debabarrena    | 6,9              | 6,8             | 11,5              | 6,2               | 6,0             | 9,3               | 8,1              | 8,1             | 14,5              | 42,1                           |
| Debagoena      | 13,4             | 13,5            | 14,6              | 10,6              | 10,2            | 8,4               | 18,6             | 19,6            | 21,1              | 51,2                           |
| Donostialdea   | 12,3             | 13,0            | 19,8              | 13,7              | 14,4            | 17,4              | 9,5              | 10,4            | 26,4              | 28,3                           |
| Goierra        | 17,0             | 16,3            | 8,6               | 11,4              | 11,5            | 13,7              | 27,7             | 25,1            | 4,4               | 54,3                           |
| Oarsoladea     | 7,0              | 7,2             | 15,7              | 6,9               | 7,1             | 15,5              | 7,3              | 7,3             | 16,0              | 36,0                           |
| Donostia       | 16,1             | 16,6            | 16,7              | 22,3              | 23,1            | 16,4              | 4,6              | 4,8             | 21,2              | 10,2                           |
| Tolosaldea     | 8,1              | 8,1             | 13,8              | 7,4               | 7,0             | 6,8               | 9,4              | 10,1            | 23,9              | 44,1                           |
| Urola Kosta    | 8,6              | 8,3             | 9,4               | 7,7               | 7,5             | 9,0               | 10,1             | 9,7             | 10,0              | 41,4                           |